GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAN, MIHI URDINA IZAN DEZAKETEN ESPEZIETAN SANEAMENDU PROGRAMEN EXEKUZIOA KONTRATATZEKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA.

2021. EKITALDIA

1.- KONTRATUAREN OBJEKTUA.

- Mihi urdinaren gaixotasunaren aurkako txertaketa kanpainak gauzatzea.

- Txertoarekiko erreakzio gisa animaliengan izan daitezkeen albo-ondorioak hautemateko jarraipena

- Zaintza serologikoa ustiategi zelatarietan, mihi urdinaren gaitza izan dezaketen abereetan, behiak eta ardiak.

2.- ZERBITZUEN, ANTOLAMENDUAREN ETA BALDINTZA OROKORREN DESKRIBAPENA.

2.1.- Lanaren antolaketa.

Kontratu honen adjudikazioduna arduratuko da agiri honetan jasotako lanak egiteaz.

Agiri honetan jasotako lanak egiteko, albaitari bat egongo da, eta, oro har, bi laguntzaile izango ditu ardiei mihi urdinaren txertoa jartzeko. Laguntzaileen presentzia murriztu ahal izango da abelburu kopuru txiki batean edo justifikatutako beste arrazoiren batean esku hartu behar den ustiategietan.

Programa, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Sustapen eta Osasun Zerbitzuaren zuzendaritzapean gauzatuko da, kontratu honen adjudikaziodunarekin, Eskualdeko Nekazaritza Bulegoekin eta Fraisoroko Nekazaritzako Kalitate eta Berrikuntza Laborategiarekin koordinatuta, gauzatzeko epean zehar.

2.2.- Mihi urdinaren gaixotasunaren aurka jarduteko programa.

Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Sustapen eta Osasun Zerbitzuaren jarraibideekin bat etorriz, eta indarrean dauden araudietan jasotako jarraibideei jarraituz, adjudikaziodunak atal honetan aurreikusitako mihi urdinaren aurkako txertaketa kanpainako zereginak beteko ditu. Arau orokor

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DE LA EJECUCIÓN DE LOS PROGRAMAS DE SANEAMIENTO FRENTE A LA LENGUA AZUL EN ESPECIES SENSIBLES EN EL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA.

EJERCICIO 2021

1.- OBJETO DEL CONTRATO.

- Ejecución de campañas de vacunación frente a la enfermedad de la Lengua Azul.

- Seguimiento para la detección de posibles efectos secundarios en los animales como reacción a la vacuna.

- Vigilancia serológica en explotaciones centinela en especies sensibles a la Lengua Azul; vacuno y ovino.

2.- DESCRIPCIÓN DE LOS SERVICIOS, ORGANIZACIÓN Y CONDICIONES GENERALES.

2.1.- Organización del trabajo.

La adjudicataria del presente contrato será la responsable de la ejecución de las tareas recogidas en este pliego.

En la ejecución de las tareas recogidas en el presente pliego se deberá contar con la presencia de un veterinario, quien será asistido, por norma general, por al menos 2 ayudantes para la vacunación del ganado ovino frente a la Lengua Azul. La presencia de ayudantes podrá reducirse en aquellas explotaciones en las que haya que intervenir sobre un reducido número de cabezas de ganado u otra causa justificada.

El programa se ejecutará bajo la dirección del Servicio de Promoción y Sanidad Agro-ganadera, de forma coordinada con la adjudicataria del presente contrato, las Oficinas Comarcales Agrarias y el Laboratorio de Calidad e Innovación Agraria de Fraisoro, a lo largo del plazo de ejecución.

2.2.- Programa de actuación frente a la enfermedad de la Lengua Azul.

De acuerdo con las directrices del Servicio de Promoción y Sanidad Agro-ganadera, y siguiendo las pautas recogidas por las normativas vigentes, la adjudicataria ejecutará las tareas de la campaña de vacunación frente a la Lengua Azul contempladas en este apartado. De manera

modura eta ezohiko inguruabarrak salbuetsita, kanpaina urritik urtarrilaren 15era garatuko da. Hala ere, epe hori luzatu ahal izango da animalien ekoizpen eta ugalketa egoerak edo justifikatutako beste edozein arrazoik hala gomendatzen duenean.

Osasun kanpainek ardi azienden ustiategiei eragiten dizkieten alferrikako eragozpenak ahalik eta gehien mugatzeko, baita txertoa hartu behar duten animalien osasuna zaindu eta babesteko ere, ardien mihi urdinaren aurkako txertaketa kanpainak bat etorri beharko du, denboran, ardi aziendei egin beharreko osasun eta erroldatze kanpainekin.

Era berean, gaitza izan dezaketen ustiategi zelatarietan, zaintza serologikoaren programa gauzatuko da, zirkulazio birikoaren ebidentzia hauteman ahal izateko.

Adjudikaziodunak lan espezifiko hauek izango ditu:

2.2.1. <u>Txertaketa kanpaina.</u>

Animalien identifikazioak egiaztatzea eta datuak hartzea.

3 hilabetetik gorako behi eta ardi espezieetako animalia guztien mihi urdinaren 8. serotipoaren aurkako txertaketa, erabilitako txertorako agindutako lehen txertaketako edo birtxertaketako jarraibidearen arabera. Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Abeltzaintzako Sustapen eta Osasun Zerbitzuak zehaztu eta emango du. Txertoa fitxa teknikoan adierazitako jarraibideen, posologiaren eta hartzeko moduaren arabera eman beharko da.

Behi azienda txertatu ondoren, ustiategitik irten aurretik, txertaketa ziurtagiri bat inprimatu beharko da, eta ustiategiko arduradunari eman beharko zaio. Dokumentu horrek albaitariaren preskripzio funtzioak beteko ditu. Era berean, ustiategiko tratamenduen liburua eguneratuko da txertaketaren datuekin.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Sustapen eta Osasun Zerbitzuaren aplikazio informatikoetan egindako txertaketa jarduketak grabatzea, jarduera egin eta 48 orduko epean.

2.2.2. <u>Txertoarekiko erreakzio gisa animaliengan izan daitezkeen zeharkako</u>

general, y salvo circunstancias excepcionales, la campaña se desarrollará desde el mes de octubre hasta el 15 de enero. No obstante, este plazo podrá extenderse cuando el estado productivo y reproductivo de los animales o cualquier otra razón justificada así lo aconseje.

Al objeto de limitar al máximo las molestias innecesarias que las campañas sanitarias provocan sobre las explotaciones de ganado ovino, así como para preservar y proteger la salud de los animales a vacunar, la campaña de vacunación ovina frente a la Lengua Azul deberá coincidir en el tiempo con las campañas sanitarias obligatorias en sanidad animal y de recensado efectuadas sobre el ganado ovino.

Asimismo, se ejecutará el programa de vigilancia serológica en explotaciones centinelas de animales de las especies sensibles que permita detectar la evidencia de circulación vírica.

Las tareas específicas para ejecutar por la adjudicataria serán las siguientes:

2.2.1. <u>Campaña de vacunación.</u>

Comprobación, verificación y toma de datos de las identificaciones de los animales.

Vacunación frente al serotipo 8 de la Lengua Azul de todos los animales de las especies bovina y ovina mayores de 3 meses de edad, de acuerdo a la pauta de primovacunación o revacunación indicada para la vacuna empleada, que será determinada y suministrada por el Servicio de Promoción y Sanidad Agro-ganadera de la Diputación Foral de Gipuzkoa. La aplicación de la vacuna deberá ser realizada siguiendo las indicaciones, posología y vía de administración señaladas en la ficha técnica.

Tras la vacunación del ganado vacuno, antes de abandonar la explotación, se deberá imprimir un certificado de vacunación que deberá ser entregado al responsable de la explotación. Este documento hará las funciones de prescripción veterinaria. Asimismo, se actualizará el libro de tratamientos de la explotación con los datos de la vacunación.

Grabación de las actuaciones de vacunación realizadas en las aplicaciones informáticas del Servicio de Promoción y Sanidad Agro-ganadera de la Diputación Foral de Gipuzkoa en el plazo de 48 horas tras la realización de la actuación.

2.2.2. <u>Seguimiento de efectos secundarios por reacción a la vacuna.</u>

efektuen jarraipena

Animaliengan eta/edo ustiategietan beharrezkoak diren jarraipenak egitea, bereziki txertoarekiko erreakzio gisa animaliengan izan daitezkeen zeharkako efektuak hautemateko.
Adjudikaziodunak txertoaren ondorioei buruzko edozein kexaren jarraipena egiteko ardura du. Abisuak abeltzainaren beraren bidez edo Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Sustapen eta Osasun Zerbitzuaren bidez jaso ahal izango ditu.

Gehienez 24 orduko epean erantzun beharko zaio abisuari. Intzidentzia ikertu ondoren, "Mihi urdinaren aurkako txertoaren zeharkako efektuen jarraipen fitxa" beteko da. Fitxaren kopia bat abeltzainari emango zaio eta bestea Nekazaritza eta Abeltzaintzako Sustapen eta Osasun Zerbitzura bidaliko da. Bisitaren emaitzak ondorioztatzen badu zeharkako efektuak txertoaren ondorio direla, kasuaren jarraipena egin beharko da denboran zehar.

Era berean, Medikamentu Agentziari eta Nekazaritza eta Abeltzaintzako Sustapen eta Osasun Zerbitzuari jakinarazi beharko dizkie txertoaren aplikazioaren ondorioz detektatutako zeharkako efektuak.

Abeltzainei informazioa ematea animalien mugimendua egiteko baldintzei buruz, baita gaixotasuna transmititzea saihesteko ustiategiak hartu behar dituen higiene eta osasun baldintzei buruz ere.

Realización de los seguimientos necesarios en los animales y/o en las explotaciones, especialmente para la detección de posibles efectos secundarios en los animales como reacción a la vacuna.
La adjudicataria tiene la responsabilidad de realizar el seguimiento de cualquier queja sobre los efectos de la vacuna. Los avisos le podrán llegar a través del propio ganadero o del Servicio de Promoción y Sanidad Agro-ganadera.
La respuesta al aviso deberá darse en un plazo no superior a 24 horas. Una vez investigada la incidencia se rellenará la “Ficha de seguimiento de efectos secundarios a la vacuna frente a Lengua Azul”. Una copia de la ficha se entregará al ganadero y la otra se remitirá al Servicio de Promoción y Sanidad Agro-ganadera. Si el resultado de la visita concluye que los efectos secundarios son consecuencia de la vacuna, se deberá hacer un seguimiento del caso en el tiempo.
Deberá asimismo Informar a la Agencia del Medicamento y al Servicio de Promoción y Sanidad Agro-ganadera de los posibles efectos secundarios detectados como consecuencia de la aplicación de la vacuna.

Proporcionar información a los ganaderos sobre las condiciones en que debe realizarse el movimiento de los animales, así como de las condiciones higiénicas y sanitarias que debe adoptar la explotación para evitar la transmisión de la enfermedad.

2.2.3. Ustiategi zelatarien jarraipena.

Animalien identifikazioak egiaztatzea eta datuak hartzea.

Odol laginak hartzea ustiategi zelatarietan. Laginketak animalia zelatarietan egingo dira, serologikoki negatiboak, txertorik hartu gabeak eta 4 hilabetetik gorakoak, Nekazaritza eta Abeltzaintzako Sustapen eta Osasun Zerbitzuak hautatutako ustiategietan. Jarraipena gutxienez 6 ustiategitako 150 animaliari egingo zaie.
Kanpainaren hasieran, maiatzean, ustiategiak hautatuko dira, eta behar diren laginak hartuko dira, gutxienez 175 abere zelatari hautatzeko.
Abere horiek ez dira txertatuta egongo, seronegatiboak izango dira eta gutxienez 6 ustiategitakoak izango dira.
Horrela, urteko zaintza kanpainan gerta daitezkeen bajak ordeztu ahal izango dira. Abere zelatarien laginketa bat egingo da urte bakoitzeko ekaina eta abendua bitartean, eta gutxienez 5

2.2.3. Seguimiento de explotaciones centinelas.

Comprobación, verificación y toma de datos de las identificaciones de los animales.

Toma de muestras de sangre en explotaciones centinelas. Los muestreos deberán realizarse sobre animales centinelas, serológicamente negativos, no vacunados y mayores de 4 meses, en las explotaciones seleccionadas por el Servicio de Promoción y Sanidad Agro-ganadera. El seguimiento se realizará sobre un mínimo de 150 animales pertenecientes, al menos, a 6 explotaciones. Al inicio de la campaña, en el mes de mayo, se seleccionarán las explotaciones y se tomarán las muestras necesarias para seleccionar al menos 175 animales centinelas que deberán no estar vacunados y ser seronegativos y proceder de al menos 6 explotaciones. De esta forma se podrán suplir posibles bajas durante la campaña anual de vigilancia. Se realizará un muestreo de animales

abere sartuko dira ustiategi bakoitzean, kanpainaren hasieran hautatutako abere zelatarien artetik.
Hilero lagindutako animaliek berak izan behar dute beti, salbu eta, ustiategian baja emateagatik, lehenengo laginketan zentinela gisa hautatutako beste animalia batek ordezten baditu.
Zaintza kanpainaren amaieran, hurrengo urteko urtarrilean, animalia zelatari guztien laginak hartuko dira.

centinelas entre junio y diciembre de cada año que incluirá al menos 5 animales por explotación de entre los animales centinelas seleccionados al inicio de la campaña. Los animales muestreados de manera mensual deberán ser siempre los mismos, salvo que, por razón de baja en la explotación de algunos de ellos, sean sustituidos por otro de los animales seleccionados como centinelas en el primer muestreo. A la finalización de la campaña de vigilancia, en el mes de enero del año siguiente, se deberá muestrear a la totalidad de los animales centinelas.

Laginak Fraisoroko Nekazaritza Kalitate eta Berrikuntza Laborategira igortzea.

Remisión de muestras al Laboratorio de Calidad e Innovación Agraria de Fraisoro.

Ustiategi zelatarietan laginekin lotuta beharrezkoak diren ikuskapenak eta anamnesi klinikoak egitea.

Realización de las inspecciones y anamnesis clínicas necesarias en relación con las muestras en explotaciones centinela.

Laborategiko analisien emaitzak interpretatzea eta animaliei egindako proben aldeko edo kontrako behin betiko irizpena ematea. Abeltzainari lortutako emaitzak jakinaraztea inprimaki ofizialen bidez.

Interpretación de los resultados de las analíticas de laboratorio y dictamen definitivo de positivo o negativo a las pruebas realizadas a los animales. Notificación al ganadero de los resultados obtenidos mediante impresos oficiales.

Datuak eta emaitzak jasotzea eta lantzea. Bildutako laginak entregatu aurretik, datu informatikoak laborategian deskargatzea.

Recogida y elaboración de datos y resultados. Descarga de datos informáticos en el Laboratorio antes de la entrega de las muestras recogidas.

Jarduketa eta gauzatze horiek guztiak dauden legezko arau guztiak errespetatuz egingo dira, eta, bereziki, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren 0600/2020 Foru Agindua, 2020ko azaroaren 12koa, eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren APA/1251/2020 Agindua, abenduaren 21ekoa.

Todas estas actuaciones y ejecuciones se realizarán respetando todas las normas legales existentes y muy especialmente la Orden Foral 0600 LI/2020 de 12 de noviembre de 2020 del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa, la Orden APA/ 1251/2020, de 21 de diciembre, del Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación.

2.3.- <u>Osasun programak egiteko materialak.</u>

2.3.- <u>Materiales para la ejecución de los programas sanitarios.</u>

Adjudikaziodunak txertaketa kanpainan sortutako hondakinak eta soberakinak kontserbatu, manipulatu, aplikatu eta kudeatzeko beharrezko ekipo eta materialak izan beharko ditu.

La adjudicataria deberá disponer de los equipos y materiales necesarios para la conservación, manipulación, aplicación y gestión de residuos y excedentes generados en la campaña de vacunación.

Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak emango ditu txertoak, eta adjudizaziodunak Fraisoroko Nekazaritza Kalitate eta Berrikuntza Laborategian jaso beharko ditu. Adjudikaziodunak txertoen hotz katea mantentzen dela bermatu eta arduratuko da garraioan, biltegiratzean eta manipulatzean, erabili arte. Halaber, sortutako hondakinak eta soberakinak behar bezala kudeatzeaz arduratuko da.

Las vacunas serán suministradas por el Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural y deberán ser retiradas por la adjudicataria en el Laboratorio de Calidad e Innovación Agraria de Fraisoro. La adjudicataria deberá garantizar y responsabilizarse del mantenimiento de la cadena de frío durante el transporte, almacenamiento y manipulación de las vacunas hasta su utilización. Se responsabilizará asimismo de la adecuada gestión de los residuos y excedentes generados.

Lagin biologikoak hartzen direnean, adjudikaziodunak laginak hartzeko behar diren ekipoak eta materialak izan beharko ditu.

2.4.- Informatikako materiala.

Enpresa adjudikaziodunak, informazio-sistemen sareetara konektatzeko, ekipamendu informatiko bat izan beharko du, gutxienez honako berezitasun hauek bete beharko dituena:

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak erabiltzen duen plataforma operatiboz hornitutako ordenagailu eramangarriak izatea.

Ordenagailu eramangarrira konektatutako inprimagailu bat izatea.

Erabili beharreko material informatikoa funtzionamendurako baldintzetan egon beharko da uneoro.

Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak kontratu honetako programen kudeaketa eta komunikazioko aplikazio informatikoak garatu eta mantenduko ditu.

Enpresa adjudikazioduneko langileek egunero eguneratu beharko dituzte informazio sistemetako datuak. Horrez gain, kudeaketako aplikazioen bertsio berriak deskargatuko dituzte, gehienez ere 5 eguneko epean.

2.5.- Laborategia.

Fraisoroko Nekazaritza Kalitate eta Berrikuntza Laborategiak, kontratuaren adjudikaziodunaren eta Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Sustapen eta Osasun Zerbitzuarekin batera ezarriko du laborategira bidali behar diren gehieneko laginak. Laginak astelehenetik ostiralera behar bezala identifikatuta bidali beharko dira, eta laborategiak ezarritako jarraibideen arabera. Hartutako laginak Laborategira eraman beharko dira hurrengo eguneko goizeko zortziak baino lehen. Barne egitura dela eta, laborategiak erabaki dezake zenbait egun edo astetan laginak onartzeko ohiko sistematika aldatzea (Aste Santua, Gabonak….)

2.6.- Biosegurtasuna eta animalien babesa.

Osasun publikoa eta animalien osasuna prebenitu eta babestu beharra dagoenez, enpresa adjudikaziodunak animalien maneiua eskatzen duten lanak eta ekintzak errespetuz eta animalien

En los casos de tomas de muestras biológicas, la adjudicataria deberá disponer de los equipos y materiales necesarios para la toma de muestras.

2.4.- Material informático.

La empresa adjudicataria, para conectarse a las redes de los sistemas de información deberá disponer de un equipo informático que deberá cumplir, como mínimo, las siguientes especificidades:

Disponer de ordenadores portátiles que dispongan de la plataforma operativa que utiliza el Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Disponer de impresora conectada al ordenador portátil.

El material informático a utilizar tiene que estar permanentemente en condiciones de funcionamiento.

El Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural desarrollará y mantendrá las aplicaciones informáticas de gestión y de comunicaciones de los diferentes programas del presente contrato.

El personal de la adjudicataria deberá actualizar los datos de los sistemas de información diariamente. Así mismo, deberá descargar las nuevas versiones de las aplicaciones de gestión en el plazo máximo de 5 días.

2.5.- Laboratorio

El Laboratorio de Calidad e Innovación Agraria de Fraisoro, en coordinación con la adjudicataria del presente contrato y el Servicio de Promoción y Sanidad Agro-ganadera, establecerá el número de muestras máximas a enviar al citado laboratorio. Las muestras deberán ser remitidas, de lunes a viernes, debidamente identificadas y de acuerdo con las directrices del Laboratorio. Las muestras deberán estar en el Laboratorio antes de las 8:00 horas del día siguiente al de la toma de muestras. Por motivos propios del Laboratorio, éste podrá determinar días y/o semanas en las cuales la admisión de muestras variará de la sistemática habitual (Semana Santa, Navidad…)

2.6.- Bioseguridad y protección animal

Dada la necesidad de preservar y proteger la salud pública y animal, la empresa adjudicataria realizará los operativos y actuaciones de trabajo que impliquen manipulación de animales, de

babesari buruzko araudia betez egingo ditu.
Kontratuan jasotako lanak ustiategietarako biosegurtasun berme handienekin egin behar dira beti eta animaliekin higiene eta osasun jardunbide zuzenak erabiliko dira ekintza teknikoak egiterakoan, kutsadurak, infekzioak edo prozesu patologikoak saihesteko.

Helburu horiek betetzeko, adjudikaziodunak praktika egokiei buruzko gida bat zabalduko du langileen artean, eta bertan jasota egongo dira biosegurtasuneko, higieneko eta osasuneko neurriak, kontratuan adierazitako lanak egitean aplikatu beharrekoak.

Foru administrazio honek ez du kalte ordainik emango kontratu honetan ezarritako higiene eta osasun jarraibide zuzenak ez aplikatzeagatik abere taldeetan sortzen diren gorabeherak direla eta.

3.- <u>BERME JURIDIKOAK ETA TEKNIKOAK.</u>

Adjudikaziodunak ez baditu Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Sustapen eta Osasun Zerbitzuak ezarritako irizpide teknikoak betetzen, edo Abere Osasunari buruzko 2003ko apirilaren 24ko 8/2003 Legea nahiz indarrean dagoen beste edozein osasun araudi urratzen badu, kontratu honen eraginpeko edozein egintza ofizial egiteko debekua ekarriko du, zehapen-espediente administratiboaz edo izan ditzakeen erantzukizun penalez gain.

4.- <u>KONFIDELTZIALTASUNA ETA INFORMAZIOAREN SEGURTASUNA.</u>

Adjudikaziodunak araudi honetan xedatutakoa beteko du:

- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa.

- 2016/679 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalei eta datu horien trafiko libreari dagokionez pertsona fisikoak babesten dituena eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra; DOUE, 2016ko maiatzaren 4koa) indargabetzen duena.

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Informazioaren Segurtasun Politika (ISP), 2017/11/13koa.

manera respetuosa y coherente con las normas de protección animal.
Los trabajos contemplados en el contrato deben realizarse siempre con las máximas garantías de bioseguridad para las explotaciones, y utilizar en las ejecuciones técnicas prácticas correctas de higiene y sanidad para los animales, con el fin de evitar contaminaciones, infecciones o procesos patológicos.

Para cumplir estos objetivos, la adjudicataria debe implantar entre el personal una guía de prácticas correctas, que incluyan medidas de bioseguridad, higiene y sanidad en la ejecución de las labores señaladas en el contrato.

Las incidencias que se produzcan en los rebaños como consecuencia de la ejecución de las actuaciones contempladas en el presente contrato por no aplicar prácticas correctas de higiene y sanidad no serán indemnizadas por esta administración foral.

3.- <u>GARANTÍAS TÉCNICO-JURÍDICAS.</u>

La no observancia por parte de la adjudicataria de los criterios técnicos emanados desde el Servicio de Promoción y Sanidad Agro-ganadera, así como cualquier infracción contra la Ley 8/2003 de 24 de abril de Sanidad Animal, y demás normativa sanitaria en vigor, supondrá además del posible expediente administrativo sancionador, o las correspondientes responsabilidades penales en las que pudiera incurrir, la prohibición de realización de cualquier acto oficial sujeto al presente contrato.

4.- <u>CONFIDENCIALIDAD Y SEGURIDAD DE LA INFORMACIÓN.</u>

La adjudicataria dará cumplimiento a lo dispuesto en la siguiente normativa:

- Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

- Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos).

- PSI de la DFG publicado en el BOG de 13/11/2017.

5.- INTERES GATAZKAK.

Kontratu honetako kontrol ofizialak egiten dituzten langileek ezin dute interes gatazken mende jardun, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko martxoaren 15eko 2017/625 Erregelamenduko (EB) 5. artikuluaren arabera. Izan ere, artikulu horretan ezartzen denez, objektibotasunak, profesionaltasunak, inpartzialtasunak eta gardentasunak izan behar dute horien jardunaren ardatz.

Kontratu honetako kontrol ofizialak egiteko teknikari gaituek izendatzen zaizkien zereginak arretaz bete eta interes orokorrak zaindu behar dituzte, lege antolamenduaren barruan eta hari atxikita. Beraz, beren jardunean erakutsi behar dute, besteak beste, objektibotasuna, zuzentasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, gardentasuna, eredugarritasuna eta prestutasuna. Printzipio horiek funtzio publikoaren ordenamenduan oinarritzen dira eta langile publikoen etika eta portaeraren euskarriak dira.

Kontratu honetan jasotako jarduerak egiteko, langile gaituek herritarren interes orokorrak asetzea izan behar dute helburu. Beren jarduna gogoeta objektibotan oinarritu behar dute, inpartzialtasuna eta interes orokorra bilatu behar baitituzte, printzipio horrekin talka egin dezakeen beste edozein alderdiren gainetik; esate baterako, jarrera pertsonalen, familiarren, korporatiboen eta adiskidekeria jarreren gainetik.

Orobat, beren jardunean leialtasunaren eta fede onaren printzipioak bete behar dituzte, bai beren zerbitzuak eskaintzen dizkioten administrazioarekin, bai eta beren nagusiekin, lankideekin, mendekoekin eta herritarrekin ere. Beren portaeran, oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak begiratuko dituzte, eta ez dute bereizkeriaren iturri den egintzarik egingo, izan jaiotzaren, arraza edo etnia jatorriaren, generoaren, sexuaren, sexu joeraren, erlijio edo sinesmenaren, iritziaren, desgaitasunaren eta adinaren arrazoiarengatik, izan beste edozein egoera edo gorabehera pertsonal edo sozialengatik.

Gainera, ez dute parte hartuko ez interes pertsonala duten gaietan, ez beren lanpostu publikoarekiko interes gatazka sortzeko arriskua duen edozein jarduera pribatutan.

5.- CONFLICTO DE INTERESES.

El personal que realice las actuaciones contempladas en el presente contrato no deberá estar sometido a conflicto de intereses de acuerdo con el Artículo 5 del Reglamento (UE) 2017/625 del Parlamento europeo y del Consejo de 15 de marzo de 2017, que refleja como fundamentos de las actuaciones la objetividad, profesionalidad, imparcialidad y la transparencia.

Los técnicos habilitados para la realización de las actuaciones contempladas en el presente contrato deben desempeñar con diligencia las tareas que tengan asignadas y velar por los intereses generales con sujeción y observancia del ordenamiento jurídico. Por tanto, deben actuar con arreglo a principios como la objetividad, integridad, neutralidad, responsabilidad, imparcialidad, confidencialidad, transparencia, ejemplaridad, honradez, entre otros, que inspiran los principios éticos y de conducta de los empleados públicos regulados en el ordenamiento de la función pública.

La actuación del personal habilitado para la realización de las actuaciones contempladas en el presente contrato debe perseguir la satisfacción de los intereses generales de los ciudadanos y se fundamenta en consideraciones objetivas orientadas hacia la imparcialidad y el interés común, al margen de cualquier otro factor que exprese posiciones personales, familiares, corporativas, clientelares o cualesquiera otras que puedan colisionar con este principio.

Así mismo, se ajustan en su actuación, a los principios de lealtad y buena fe con la Administración en la que prestan sus servicios, y con sus superiores, compañeros, subordinados y con los ciudadanos. Su conducta se basa en el respeto de los derechos fundamentales y libertades públicas, evitando toda acción que pueda producir discriminación alguna por razón de nacimiento, origen racial o étnico, género, sexo, orientación sexual, religión o convicciones, opinión, discapacidad, edad o cualquier otra condición o circunstancia personal o social.

Además, se deben abstener en aquellos asuntos en los que tengan un interés personal, así como de toda actividad privada o interés que pueda suponer un riesgo de plantear conflictos de intereses con su puesto público.

6.- LANEN ZUZENDARITZA ETA KONTROLA.

6.- DIRECCION Y CONTROL DE LOS

TRABAJOS.

Lanen kontrola eta jarraipena Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Sustapen eta Osasun Zerbitzuak egingo du.

El control y seguimiento de los trabajos se llevará a cabo por el Servicio de Promoción y Sanidad Agro-ganadera del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Sustapen eta Osasun Zerbitzuaren eginkizunak:

- Lanak egiteko beharrezkoak diren baliabide eta antolakuntza exijitzea.

- Kontuan hartuz kasu bakoitzaren inguruabarrak eta lortzen ari diren emaitzak, lan programaren aldaketak planifikatzea, baldin eta amaierako aurrekontua ez bada aldatzen.

- Kontratatutako lana etengabe eta zuzenean ikuskatzea eta kontrolatzea. Horretarako, adjudikaziodunak erraztu egingo ditu Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Sustapen eta Osasun Zerbitzuak, edozein lan prozesu edo fasetan, beharrezkotzat jotzen dituen aldizkako bilera, bisita eta azterketak, eta helburu horretarako behar den informazio guztia emango du.

- Erakundeei, elkarteei, espezialistei eta abarrei eskatzea jarraipeneko bileretan parte har dezatela, baldin eta horien iritzia eta lankidetza egokitzat jotzen badira kalitate handieneko lana egiteko.

- Kontratua egikaritzerakoan sortzen diren gorabeherak izapidetzea.

Funciones del Servicio de Promoción y Sanidad Agro-ganadera:

- Exigir la existencia de los medios y organización necesarios para la ejecución de los trabajos.

- Programar las modificaciones en el programa de trabajo de acuerdo con las circunstancias en cada caso y los resultados que se vayan obteniendo, siempre que no varíe el presupuesto final.

- Ejercer de una manera continuada y directa la inspección y vigilancia del trabajo contratado. A este fin, la adjudicataria facilitará las reuniones, visitas y exámenes periódicos que el Servicio de Promoción y Sanidad Agro-ganadera considere preciso, sobre cualquier proceso o fase de los trabajos, aportando la información que sea necesaria para este objeto.

- Solicitar la asistencia a las reuniones de seguimiento de aquellas entidades, asociaciones, especialista, etc., cuya opinión y colaboración considerase oportuna para asegurar la obtención de un trabajo de máxima calidad.

- Tramitar cuantas incidencias surjan en la ejecución del contrato.

7.- JARDUEREN AURREIKUSPENA.

Osasun programak egiteko abeltzaintza erroldak:

7.- PREVISION DE ACTUACIONES.

Censos ganaderos sobre los que realizar los programas sanitarios:

Mihi Urdina programa / Programa Lengua Azul		
Jarduketak *Actuaciones*	*Ustiategi kopurua* *Nº explotaciones*	*Abelburu kopurua* *Nº cabezas*
Behi azienda: Mihi urdinaren aurkako txertaketa eta birtxertaketa lehen txertatuetan Bovinos: Vacunación Lengua Azul y revacunación en primovacunados	***2400 x 2=4800 ust.***	***59800 buru***
Behi azienda: odol/suero laginketa ustiategi zelatarietan. Bovinos: Toma de muestras de sangre/suero en expl. centinela	***130 ustiategi***	***1640 buru***
Ardi azienda: Mihi urdinaren aurkako txertaketa Ovinos: Vacunación Lengua Azul	***2400 ustiategi***	***118000 buru***
Ardi azienda: Txertoaren jarraipena Ovinos: Seguimiento vacuna	***30 ustiategi***	

8.- KONTRATUAREN PREZIOA.

Jarduketen banakako prezioak hurrengo ereduaren arabera zehaztu beharko dira:

8.- PRECIO DEL CONTRATO.

Los precios unitarios de las actuaciones deberán venir especificados según el siguiente modelo:

KONTZEPTUA CONCEPTO	PSP gehienez	KOPURUA aurreikusia CANTIDAD prevista	PSP ESKAINIA
Behi azienda: Mihi urdinaren aurkako txertaketa eta birtxertaketa lehen txertatuetan Bovinos: Vacunación Lengua Azul y revacunación en primovacunados	1,00	59800	€/txertoko
Behi azienda: Mihi urdineko ustiategietara bisitak Bovinos: visitas a las explotaciones Lengua Azul	17,67	4800	€/ustiategiko
Behi azienda: odol/suero laginketa ustiategi zelatarietan Bovinos: tomas de muestras de sangre/suero en explotaciones centinelas Lengua Azul	2,00	1640	€/lagineko
Behi azienda: Mihi urdineko ustiategi zelatariei bisitak Bovinos: Visitas a explotaciones centinela	38,02	130	€/ustiategiko
Ardi azienda: Mihi urdinaren aurkako txertaketa Ovinos: Vacunación Lengua Azul	0,60	118000	€/txertoko
Ardi azienda: Mihi urdineko ustiategietara bisitak Ovinos: Visitas a explotaciones de Lengua Azul	17,67	2400	€/ustiategiko
Ardi azienda: Txertoaren jarraipena egiteko bisitak Ovinos: Visitas seguimiento vacunas	38,02	30	€/ustiategiko